



**LANGILERIAREN KUDEAKETARAKO ZUZENDARIAREN 2011ko
AZAROAREN 29ko EBAZPENA, 2011/2012 IKASTURTEAN
ORDEZKAPENAK EGITEKO HAUTAGAIEN BEHIN-BETIKO ZERRENDAN,
2011ko ABUZTUAREN 8an ARGITARA EMANDAKOA, ANTZEMANDAKO
AKATSAK ZUZENTZEN DITUENA.**

Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren 2011ko ekainaren 10eko ebazpenaren bidez argitara eman zen Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan ordezkapenak egiteko hautagaien behin-betiko zerrenda.

2011ko uztailaren 27an argitara eman da 2011/2012 ikasturtean ordezkapenak egiteko hautagaien behin-betiko zerrenda, zerrenda horren kontra jarritako gorako errekurtsioak aztertu ondoren. Eta, 2011ko abuztuaren 3ko ebazpenaren bitartez, 2011ko abuztuaren 8an berriro, argitara eman zen, antzemandako akatsen zuzenketa egin eta gero.

Azken zerrenda hori argitara ematean akats batzuk gertatu direla egiaztatu ondoren, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 legeak, urtarrilaren 13ko 4/1999 legeak emandako erredakzioan, 105.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, *“administrazio publikoek, ofizioz edo interesatuen eskariz, edozein unetan zuzendu ahal izango dituzte beren egintzetan dauden akats materialak, izatekoak edo aritmetikoak”*, aipatutako legeria eta bat datorren gainontzekoa ikusita,

EBATZI DUT

Lehena.- Ondorengo terminoetan zuzentzea 2011/2012 ikasturtean ordezkapenak egiteko 2011ko abuztuaren 8an, gorako errekurtsioak ebatzi ondoren, argitara eman zen hautagaien behin-betiko zerrendaren akatsak:

- Mikel Aramaio Aristondo Lehen Hezkuntza eta Gorputz Hezkuntza espezialitateetan sartzea.
- Arantza Montaña López andreari emandako puntuazioa zuzentzea, zerbitzuetan egindako akats bat aldatuz. Horiek horrela,
Santísima Trinidad HLBHIP 2005/01/20tik 2010/06/30era agertu beharrean,
Santísima Trinidad HLBHIP 2005/09/01etik 2010/08/31ra agertu behar du.
- Zuriñe Uriarte Landeta andreari emandako puntuazioa zuzentzea, zerbitzuetan egindako akats bat aldatuz. Horiek horrela,
Kirikiño Ikastola HLBHIP 2006/01/20tik 2006/04/24ra agertu beharrean,
Kirikiño Ikastola HLBHIP 2006/01/20tik 2006/06/30era agertu behar du.
- Aitziber Sarasola Azurmendi andreari emandako puntuazioa zuzentzea. Izan ere, espediente akademikoaren puntuazioan egindako akatsa aldatzen da eta puntuazio hori 0,50 puntukoa izatera pasatzen da

Bigarrena.- Interesatuak gorako errekurtoa jarri ahal izango dute administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, ebazpen hau argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Juan Manuel Aramendi Arteaga
Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaria

Vitoria-Gasteizen, 2011ko azaroaren 29a